

Donostia'n 1.956-4-29

Jaun apaiza,

Grain urte bat eta erdi duela, Ustaritz'eko Seminario'an egon nintzan zurekin izketan. Handik hunerat, bide luzea egina dut euskal-soroan. Emeki-emeki, lehenago erdaraz asko izkiriartzen bai-nuen, eta hura gero ta geiago euskaraz egiten dut, gaiak gaitzak izanikan ere. Haatik, jakina, etxean gordेरirik ukan ditut euskal-lan horik, ez bai-naiz nire trebetasunaz fida. Halakotz, zu bezalako iskiriartzale antzetsu bateri euskaraz egitekotz, ausardi anditxoz arrotu behar dut nire egiazko eza-gutza.

Gaurko hunetan ere, galde batzu egin nahi nauzkezu, euskarari buruz, zuk hain galantki egin gomituaz baliatuz, zutaz bertze-alde ez bai-dut inor ezagutzen, auzi hauk argi litzaidanik. Korapilo hauetan batzu, ohiko euskal-teknikari dagozkio. Bertzeak, berriz, ni-hunek sort-arazi ditut gure izkararen joskerak luzatu ta ugaritu nahirik, edo-ta haren mamian sartzeko asmoarekin. Barka ezaidazu beraz, baldin bizanziotar usai tipia ba-dariote.

1) Zure gramatikari so eginik, "Nahi nuke etxean legon" diogun bezala, ez dezakegu "... etxean hagon" erran, irugarren pertsonako sujetoa bertzetuz. Ordean, Axular'en frase ezagutua, hala-egia, hunakoa :

"Haur da nik nukeien gauzetarik bat, ene ensei u aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia ..."

2) Irakurri berria dut :

"... Doktrina, Skriptura Sainduari galdegin bageniezon, eztugu han aurkhituren". (V. Kortabitarte).

"Geniezon" hori ez da okerreuz erabilia, "diezogu"-ordez ?

3) Kontsonantez bukatzen diren verbo-formai dei-sufijoak ezartzeko, -zure gramatikari so-, "e" euphonikoa tartetu behar. Haatik, "zu" dala-ta, ez dut "e" hori aurkitzen, liburuetan : "doaz" adi-bidez arturik, "ziotzu" ikusten dut. Bi etara egin daiteke ?

..../....

.../...

4) "Egon naizen mendia" diogularikan, berehalaxe ohartzen zerbait falta dala. Beraz, euskaraz argi-argi erratekotz, hunela behar lizateke : "Bertan egon naizen mendia" edo halako zerbait. Ordean, printzipio hori zabalduz, errelativo-frase frango ederki antola daiteke, era berean : "Harentzat zaldia erosi dutan mutil hori..." ; "Heien kontra gudukatu naizen pertsonak ez ditut bein ere gorroto ukan".

"Bai (t)-" verbo-aurrekoa erabiliz eratzen dan joskera eder-jatorra on-arturik, egokia dateke goiko forma horren ere batzutan enplegatzea. Nire gardiz, ez da errex frase horien argitasuna ukatzen, ez-eta jatortasuna ere, azalean klasikoak ez izan arren. Hala ere, zure ustea ezagutu nahi nuke.

x nahi

5) Pluralari sufijo batzuren ematean, "eta" tartekoa dadukaten forma ainitz ditugu. Zuk erran zenautanez, "e" dugu, horietan, pluralaren ezaugarria. Auzi huneri buruz lan baten egitean ari naiz-eta, jakin^xnuke teoria hori inprimatu izan danetz eta non bilatu behar dutan.

6) Euskaldun izkiriartzale askok ez dukete txit argi ikusten verbozko-osokai berezien enplegua. Geienek leku-jenitibua darabilte beti-edo. Zuk emanikako arauak ere ez naute asetzen, hala-egia. Etsenplu baterako : "Kantatzeko orde" ta "kantatzeko plaza" erranetan "plaza" ta "orde" ez dire inolaz ere izen konkretuak, zure gramatikak nahi bezala. Baldin bertze soluzio-oren bat ezagutzen ba-duzu, arren emaidazu berri.

7) Erran dezaikedazu non eros "Bi saindu eskualdunen bizitzea" ? Alperrik ibilia bai-naiz haren xerka Miarritze ta Baiona'ko liburu-dendetan.

Eta gaurkotz aski, galdeketa hau luzeegitu bai-da. Ba-nituen bertze errateko batzu, batez ere gramatika utsaz kanpo-koai buruz, bainan horik alderat utzirik ere, ahalge nauzu, hain-bat lan zuri emanik.

Barka beraz, eta ar itzazu nire egiazko-eskerrak.

Jimena B.